



8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtziona dezan, gauza asko egin behar ditugu:

- **Rutak:** ruta batzuk planeatu beharko genituen. Publizitatea izan arren, ba dakigu Espainia hutseko adineko pertsona askok ez dituztela mugikortasuna eta ez direla hirietara joaten, horrez gain, haien etxeetatik pasatuko gara galdetzera ea laguntza behar duten. Joan baino lehen, biztanleei jakinaraziko diegu, prest egoteko.
- **Hitzorduak:** hitzordua eskatzeko erraztasunak jarri behar ditugu, badakigulako heldu asko ez dutela eskuko telefonoa ezta telefono finkoa gurekin kontaktuan jartzeko. Horrez gain, udalen bidez hitzordua hartzeko aukera dute.
- **Jarduera juridiko eta administratiboak:** alde batetik, animalen ongizateari buruzko araudia betetzea beharrezkoa da. Gainera, osasun lizentziak eta ibilgailuen baimena izatea ezinbestekoa da. Azkenik, gure langileak lanean hasi baino lehen formakuntza bat osatu beharko dute albaitaritzan.
- **Kontrol generalak:** kontrol generalei buruz oso adi gaude. Ruta edo hitzordu baten ondoren furgoneta osoa desinfektatu behar dugu, hozkailuak ditugu txertoentzat, material eta medikamendu guztiak egunero berrikusten ditugu egoera onean daudela bermatzeko.
- **Prezio eskuragarriak:** prezio egokiak jarri behar ditugu nekazarien eskura egoteko, kontuan hartzen dugulako nekazarien kapitala.
- **Baloreak:** gure enpresak, gure herrialdearen biztanleak afektatzen dituen arazo bati aurre egiteko sortu dugu, horrez gain, beharrezkoa da tratamendu hurbila eta pazientzia izatea, jatorrak izatea, azalpen errazak egitea eta garrantzitsuena, profesionaltasuna alde batera uztea eta kezka eta hurbiltasuna erakustea.